

EUSKERA ABERASTU

EGON = ESTAR

Erderazko aditzak: estar, consistir, corresponder, apear, convenir, estar conforme, depender... euskeraz EGON aditzaz oso egoki eta polito esan daitezke.

Adibide oneik Muxika-ren iztegitik artuta dagoz.

Zoriona on egitean dago = la felicidad consiste en...
 Ontasuna ez dago andi-txikian = la bondad no consiste en...
 Ori egitea ez dago nigan = ...no depende de mi.
 Etxe onetan dago zure laguna = Tu amigo reside en esta casa.
 Zuri nago = A ti me dirijo, hablo contigo.
 Asmo orretan dago = Persevera en ese deseo.
 Janda nago = ya he comido.
 Ikusita nago = ya lo he visto.
 Zuzen dago = Tiene razon. Esta en lo cierto.
 Oker dago = Esta equivocado. No tiene razon.
 Zure asmoarekin ez dago = No esta conforme con...
 Egiteko asko dago = Falta mucho por hacer.

Ezetzear dago = Continua en la negativa.
 Ezetzera dago = Se inclina mas bien a la negativa.
 Bustiko nazalakoan nago = Creo que me mojare.
 Bustiko ete nazan nago = Creo que me mojare.
 Berean dago = Continua en sus trece.
 Errira etortera dago = Piensa venir al pueblo.
 Egitera dago = Esta inclinado a efectuarlo.
 Eurira dago = Esta a punto de llover.
 Garia zenbatean dago? = ^A que precio se vende el trigo?
 Joaterik ez dago = No se puede ir. No es posible el ir.
 Egonez an dago = En realidad reside alli.
 Ostatur egon = hospedarse.
 Besta aldetik erderazko "estar" aditza era askotara euskeratu daiteke. Aldi bakotxean aurretik zer esan gura dogun ikusi bear geunke.
 Estoy curando = sendaketan diardut. Sendaketan ari naiz.
 ;Que estas haciendo? = Zertan diarduzu? Zer egiten ari zara?
 Estoy andando = Ibili nabil.
 Estoy trayendo = Ekarri dakart.
 He estado en casa = Etxean izan naz. Etxean egon naz.

GOIKOETXEA INAKI

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuifiak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

•Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larrea-tegi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

• Sariak lau izango dira:

- 1." 40.000 pezeta
- 2." 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^B 10.000 pezeta

• Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK